



**URKOME**  
LANDA GARAPENA

**2025eko EKINTZEN TXOSTENA & LIKIDAZIOA  
2026ko KUDEAKETA & AURREKONTU PROPOSAMENA**

**Martxoak 25**

**URKOME-ren FUNTZIONAMENDU OROKORRA**

LGEren funtzionamendu egokia bermatzen duten kudeaketako barne-zereginak honako hauek dira:

- Urteko Kudeaketa Plana** egitea eta proposatutako jardueren jarraipena egitea.
- Urteko laburpen-memoria** egitea, aurreikusitako jardueren gauzatze-maila aztertuta.
- Elkartearen barneko **administrazio-kudeaketa**ren berezko zereginak: zuzendaritza-batzorde eta Batzar orokorraren deialdia, aktak eta memoriak egitea, aurrekontua kudeatzea, etab.
- LGEren komunikazioa** (jarduera propioak zabaltzea, prentsa-oharrak egitea, ekitaldietarako izen-emateak jasotzea, sare sozialak, webgunea, Newsletter-a, laguntzak, eskualdeko albiste interesgarriak, prentsaurrekoak antolatzea, etab.)



- LGE-en eremuan sortzen diren elkarlanerako Foroetan parte hartu: **LANDAGUNE/LANDAOLA/MENDINET/MENEKO/KOOPERAZIO PROIEKTUAK**
- LGProgramaren baitan dauden dirulaguntzen berri eman eta informazio eta aholkularitza eskeini
- Administrazioarekin bilerak: GFA/EJ...
- Eskualdeko beste erakundeekin elkarlana eta mahai ezberdinetan parte hartu: IB/UKUE
- Udalek eratzen dituzten foro ezberdinetan parte hartu: Agenda 2030 (udal ezberdinak) /Hirigintzako planeamendu orokorrak/ Plan estrategikoak/ Ingurumen mahaiak etabar
- Eskualdeko dinamizazioa: Proiektuak & Zerbitzuak

#### Bestelakoak:

- ❖ RGPD eta LSSI jarraipena egin
- ❖ Prebentzio zerbitzuen jarraipena





- ❖ Gipuzkoako Landa Garapen Elkarten Federazioa da. Gipuzkoako 6 LGE-ek osatzen dugu.
- ❖ Amankomuneko antolaketa
- ❖ **Helburua: Gipuzkoa mailako proiektuak bultzatzea**
- ❖ Proiektu amankomunak: komunikazioa, Landa eremuko hondakinen kudeaketa eta balorizazioa, Nekazal kulturaren hezituz, Bertako produktuen sustapena, baserriaren edo landa eremuaren sustapenerako zerbitzuak, LANDAN EKIN, Landaola Sariak, ...
- ❖ **GIPUZKOAKO AZOKEN SAREA** proiektua
- ❖ **TREBATU** proiektua
- ❖ 2025ean VIII.LANDAOLA SARIAK Zumarraga(Martxoak 14)
- ❖ 2026an IX. LANDAOLA SARIAK Mendaro (Martxoak 6)
- ❖ **[www.landaola.eus](http://www.landaola.eus) eta sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube)**
- ❖ EKITALDIAK: EHU Udako Ikastaroak...
- ❖ Etorkizuna Eraikiz ( Sagarberritzen eta ZFood proiektuak)...
- ❖ ELGP (Lurraldeko proiektuak eta amankomuneko lan ildoak identifikatu dira)

**URKOME-k emandako zerbitzuak**


# 1. ESKUALDEKO LANDA GARAPEN PROGRAMA BERRIAREN GAUZATZEA ETA ZABALTZEA

## ELGP 2024-2027

Ardatz Estrategikoak (12)	Jarduera ildoak (17)
05 Irisgarritasuna	LANDA EREMUKO AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK HOBETU
09 Derrigorrezkoa ez den goi-mailako hezkuntza	PRESTAKUNTZA-ESKAITZA TENDENTZIA BERRIETARA EGOKITZEA
13 Gizarte-arreta	GENERO-EKITATEA ETA KOLEKTIBO ZAHURGARRIEN INKLUSIOA SUSTATZEA
20 Eraldaketa digitala	LANDA-EREMUAN ERALDAKETA DIGITALA ETA SORTZEN ARI DIREN TEKNOLOGIAK TXERTATZEA
25 Etxebizitza-eskaintza	LANDA EREMUA AUKERA ERAKARGARRI BIHURTU
30 Gazteria	LANDA EREMUAN LANA ETA BIZI BALDINTZAK ERRAZTEKO EKINTZAK GARATZEA
31 Ekintzailera	EKOSISTEMA EKINTZAILEA DINAMIZATZEA
32 Egungo sarearen lehiakortasuna hobetzea	TOKIKO ERAGILEEN ETA ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA
32 Egungo sarearen lehiakortasuna hobetzea	LEHEN SEKTOREA PROFESIONALIZATU ETA BERRIKUNTZA SUSTATU
32 Egungo sarearen lehiakortasuna hobetzea	EKONOMIA ZIRKULARREKO ETA KUDEAKETA JASANGARRIKO NEGOZIO-EREDUAK GARATZEA
33 Enplegua eta prestakuntza	ERRELEBOA LANDA EREMUAN BULTZATZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	LEHEN SEKTOREKO ERAGILEEN ERRENTAGARRITASUNA ETA BIZI KALITATEA HOBETZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK BULTZATZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	BERTAKO PRODUKTUAK ETA LEHEN SEKTOREA BALIOAN JARTZEKO SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK BULTZATZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	LURRAK ESKURATU ETA LEHEN SEKTOREARENTZAT ERABILGARRI JARRI
36 Lehentasunezko sektoreak - Turismoa, merkataritza eta lotutako jarduerak	TOKIKO PRODUKTUAK ETA BERRIKUNTZA BULTZATU
40 Natura-ondarea kontserbatzea eta balioestea	NEKAZARITZAREN ETA AISIALDIAREN BATERAGARRITASUNA LORTZEKO NEURRIAK TOPATU

\*2024-2027ko ELGP-a Eusko Jaurlaritzak onartu du, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzeko zain zabalketa egiteko.

## 2. EUSKO JAURLARITZA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ARGITARATUTAKO PLAN ETA PROGRAMAK BULTZATU ETA DINAMIZATU



- Eusko Jaurlaritzaren Landa Garapen Zuzendaritzak kudeatzen du. Fondo propioekin.
- Urkome, Erein programaren kolaboratzailea da.
- Informazioa eman, eskariak jaso, aztertu, bideratu eta proiektuen jarraipena egiten dugu.
- EREIN erakunde publikoei zuzenduriko laguntza da eta eskualdeko herri guztiak sartzen dira
- 2025ean 10 eskaera egon dira eta 3 izan dira onartuak: Aizarnazabal, Beizama eta Azpeitiko proiektuak.

- Europar Batasunak landa-garapena bultzatzeko diseinatutako ekimena da.
- Programa honen kudeaketa MENDINET elkarteak egiten du.
- EAEko Landa Garapen Elkarte guztiek (18) eta HAZI fundazioak osatzen dugu Mendinet.
- Leader 2023-2027 epealdia aktibitate ekonomikoari lotutako proiektuetara bideratzeko
- Informazioa eman, eskariak jaso, aztertu, bideratu eta proiektuen jarraipena egiten dugu Urkometik.
- 2025ko deialdian 10 eskaera egon dira (guztiak pribatuak) eta 4 onartu dira.
- 2026an deialdia martxoan irtetzea espero da.

<https://mendinet.eus/proyectos-leader/>



\*Eusko Jaurlaritzak, Erein: 2025eko soberako funtsak aurtengo deialdian sartu nahi dituzte, eta , kudeaketa horiek direla eta, 2026ko deialdia uste baino beranduago aterako da .

\* 2 miloi gutxiagorekin aterako da 2026ko deialdia.



**GFA-ak Baserri bideen dekretua:**

**2025ean 9 herrietako 9 proiektu lagundu dira GFAko baserri bideen laguntzetatik: 271.879,73€ko dirulaguntza eta 512.146,24€ko inbertsioa suposatu du.**

**VII Kapituluak (inbertsioak) GFA-ak egiten duen deialdia. 2025ean eskualdeko proiektu bakarra onartu da: Ibarbi Kooperatiba. 11.925,56€ko dirulaguntza eskuratu du eta 18.347,01€ko inbertsioa egin da.**

# HAZINNOVA

Laguntza hau **5 langile edo gehiago** dituzten ETE-ei zuzenduta dago eta **aholkularitzako 50 ordu** eskaintzen ditu, **doan, 3 hilean emaitzak eskuratzeko.**



**URKOME 2025**  
**EMPRESAK ASIGNATUTA (Elikadura balio kateko eta 5 langiletik gorako enpesak)**  
**2025ean ez da espedienterik tramitatu Urkometik**  
**2026an ez da zerbitzu hau egongo**

# LAN MENTORING



Doako laguntza-zerbitzu espezializatua enpresa txiki eta ertainentzat, beren plantilletan edo, zehatzago, beren negozioarako kritikoak diren zenbait lanpostutan belaunaldi-erreleboa arrakastaz jorratzeko, ezagutza modu egokian transferitu eta plantillan gera dadin.

Baldintza: 10-249 langile dituen enpresentzat.  
50 orduko aholkularitza pertsonalizatua



[https://www.lanbide.euskadi.eus/relevo-generacional-y-gestion-de-la-edad-en-pymes\\_eus/weblan00-content/eu/](https://www.lanbide.euskadi.eus/relevo-generacional-y-gestion-de-la-edad-en-pymes_eus/weblan00-content/eu/)

**2025ean ez da espedienterik tramitatu eta 2026an ez da zerbitzu hau emango.**

### 3. ESKUALDEKO BIZTANLEGOARI ETA TOKIKO ERAKUNDEEI, DIRU LAGUNTZEN INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA EMAN




Landa garapenaren eta nekazaritza jardueraren testuinguruan, alor desberdinei lotuta, norbanako herritarrei zein elkarteei bide laguntza eskaini, beraien eskutik jasotzen diren eskariak bideratzeko. Besteak beste:

- Nekazal jarduera arloko gaietan.
- Landa eremuko gaietan.
- Ekintzailetza arloan.

Landa eremuan ditugun ekintzaileengana zuzentzeko, eskualde mailan dauden bi garapen Ajentziekin (UKUE eta IRAURGI BERRITZEN) elkarlana egiten dugu. Bestalde, sektoreko proiektuak HAZI Fundazioarekin elkarlanean, GAZTENEK/ TREBATU laguntzetara bideratzen ditugu bere proiektuak aurrera egin dezaten.



## 4. ESKUALDEKO UDAL, MANKOMUNITATE, GARAPEN AJENTZI ETA ERAKUNDEEKIN ELKARLANA ETA PROIEKTUAK BULTZATU




PROPUESTA DE PROYECTO  
Enero 2025

# Inklusivity Urola

Ecosistema estimulador del talento de personas vulnerables para el desarrollo de negocios circulares en Urola Kosta

Patrocinadores:



Gure eskualdea, bi azpi-eskualdeetan banaturik dago Garapen Ajentzi eta mankomunitateei dagokionez. Horregatik, oso garrantzitsua da, erakunde guztiekin harremanak eta proiektuak elkarlanean egitea.

2025ean gainera, etorkizunerako eskualde osoarentzat oso garrantzitsua izango den proiektuaren lehen pausoak eman ditugu: INKLUSIVITY UROLA izeneko.

Bestalde hainbat mahai ezberdinetan parte hartzen dugu: Energia mahaia, Turismo mahaia, Ekintzailtza mahaia etabar. Mankomunitateekin ere, artile eta plastikoaren bilketa eta hauen balorizazio proiektuekin elkarlanean gabiltza.



## 4. ESKUALDEKO UDAL, MANKOMUNITATE, GARAPEN AJENTZI ETA ERAKUNDEEKIN ELKARLANA ETA PROIEKTUAK BULTZATU



Urola Erdiko  
energia eta  
klima mahaia



- HILEAN BEHIN BILERA.
- ESPLOTAZIOETAN AUDITORETZAK: 4 (Elosiaga, Premietxeberri, Sakona eta Arriagain)
- UDAL TXIKIETAN AHOLKULARITZA ENERGETIKO SAIOA:
  - Bakoitzaren beharrak identifikatu.
  - Behar amankomunak aurkitu.
- UDAL ORDEZKARIENTZAT FORMAKUNTZA: ENERGIA ETA KLIMA ALDAKETAREN ARLOKO BETEBEHARRAK UDALENTZAT
  - Jasangarritasun energetikoaren 4/2019 legea.
  - Klima aldaketaren 1/2024 legea.

## 5. LANDA GARAPENeko ETA NEKAZARITZA JARDUERARAKO GAIAK LANTZEKO ESKUALDEZ GAINDIKO ERAKUNDE ETA FOROETAN PARTE HARTU

Eskualdez gaindiko erakunde, Foro edo/eta sareetan parte hartzen dugu, baita Landa Garapenaren eremuan eratzen diren elkarlanerako foroetan ere: LANDAOLA, LANDAGUNE, MENDINET, MENEKO, LANDA GARAPENERAKO EUSKAL SAREA...



# 6.- Karpa Zerbitzua

## KARPAK:

Urkomek, eskualdeko herriei eta bazkide diren eragileei eskeintzen die zerbitzu hau.

2025ean 10 toldo berri erosi genituen (4.598€)

- Azoketan erabilitako karpa kopurua 597
- Karpak erabili diren ekintza ezberdin kopurua 82



# 7. Liztor beltza

- 2015tik eskualdean kudeaketa amankomuna. Urkomeko funtzionamendu gastuetan

- Kendutako habi kopurua:

2014an 47 habi

2015an 144 habi

2016an 184 habi

2017an 156 habi

2018an 219 habi

2019an 142 habi

2020an 149 habi

2021ean 166 habi

2022an 225 habi

2023an 272 habi

2024an 252 habi

2025ean 473 habi (%82ko igoera)

❖ 2025ko kostua: 46.266,92.-€ (2 KONTRATU TXIKI + 10.036,47€ 2026ra atzeratuta)

❖ 2026an kontratu txikia + zuzenean udaletxeei.

\* 2026an Urkometik 15.000 €ko gastua finantzatuko da. Hortik aurrerako gastua dagokion Udalari fakturatuko zaio.



# 8.-NEKAZAL AZPI PRODUKTUEN KUDEAKETA

\* PLASTIKO  
BILKETA (628,15 Tn)



\* ARTILE BILKETA  
(74,08 Tn)



**2026an eredu  
aldaketa**

\* Artilea jasotzeko 2026an zerbitzua doan izango da. Artilea sartzeko zakuak eskualdeko nekazal bulegoetan jasoko dira. Urola Kostan bilketa uztailaren 1ean, eta jasotzeko puntua Lapatxen izango da.

# 8.PLASTIKO BILKETA ZERBITZUA

- Hilero egiten da zerbitzua: bigarren asteko astearteetan
- 2025ean jasotako kopurua 207.030Kg
- ❖ GASTUA 22.447,15€
- ❖ Finantziazioa %100ean GFA-tik LANDAOLA bidez
- ❖ **2026an eredu aldaketa**



# 9.MAKINARIA ZERBITZUA

Gipuzkoako baserritar eta abeltzainei zuzendutako makinaria zerbitzuak bultzatzea da dirulaguntza honen helburua, bazka edo forraje produkziara bideratuak dauden zerbitzuak eskaintzen dira.

Landaolatik kudeatzen da zerbitzua lurralde mailan.  
[www.landaola.eus](http://www.landaola.eus)

Diruz lagundutako makinaria zerbitzu hauek jaso ahal izateko baldintza konkritu batzuk bete behar dituzte bai baserritarrek, bai makinaria zerbitzu emaileek (urteroko deialdian argitaratzen dira).

Laguntza jasotzen diren zerbitzuak makinari astunarekin emandakoak dira eta forraje edo bazka produkziarako bideratutakoak: belarra ebaki, bildu, rotoenpakatu, enzintatu belarra ereitea eta artoa eta negu belarra, lurra prestatu, erein, jaso, pikatu eta garraio zerbitzua).



# 10.LANDAN EKIN

Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresen artean sorkuntza eta lankidetzaren sustatzeko helburuarekin, 2025ean Landaolak hainbat tailer antolatu zituen MIKek garatutako aliantza adimendunen metodologia aplikatuz. Tailer horietan, 2024an antolatutako Landan Ekin lehiaketara aurkeztu ziren ekintzaileek parte hartu zuten.

Tailerrak baloratu ondoren, nekazaritzako elikagaien balio-kateko eragileen arteko lankidetzaren bultzatzeko zerbitzu baten premiaz ohartuta, Landan Ekin zerbitzua abian jartzea erabaki zuen Landaolak, Gipuzkoako landa ingurunean, elikadura kateko autonomo eta mikroenpresei beren proiektuen balio erantsia handitzen eta hobetzen laguntzeko helburuarekin, lankidetzaren eta aliantza adimendunen metodologia aplikatuz.

Uztailaren 24an webinar bat burutu zen nekazaritzaren elikadura kateko eragile ezberdinei zuzendua, Landan Ekin zerbitzuari buruzko informazioa helarazteko eta lehendik martxan dauden eta eredugarri izan daitezkeen lankidetzaren proiektuak azaltzeko.



<https://landaola.eus/wp-content/uploads/2025/07/4-LANDAN-EKIN.mp4>

**EKINTZAK ETA PROIEKTUAK**

# 1.- LANDA EREMUAN ERALDAKETA DIGITALA ETA SORTZEN DIREN TEKNOLOGIAK TXERTATZEA: SMARTFARMING ETA BASERRI DIGITALA 2.0 ARDATZA 20: ERALDAKETA DIGITALA



Eusko Jaurlaritzako Kooperazio 2024ko deialdia

## SMART FARMING

**Partaideak:** Asmoz Fundazioa, Ehnelur, Zubigune Fundazioa, LoraOntech, Sakona Etxaldea eta Urkome

*Smartfarming 2024-2025 urteak (EJ) 174,212€ (%80 finantziazioa) Bazkide guztien artean*

## GFA MISIOAK 2025

## BASERRI DIGITALA 2.0

**Partaideak:** Zubigune Fundazioa, Asmoz Fundazioa, Ehnelur eta Urkome. (Eskualdeko ekoizleak: Sakona, Makibar, Lurreko Bizia.)

*Baserri Digitala 2025-2026 urteak (GFA) 124.720€ (%80 finantziazioa) Bazkide guztien artean*

Lehen sektorean erabiltzen den uraren eraginkortasuna hobetzea IoT sentsoreetan (gauzen Internet) oinarritutako monitorizazio-sistema baten bidez, lurzoruaren tenperatura, hezetasuna eta beste datu batzuk neurtuz ureztatzeko uraren erabilera egokiagoa egiteko. Tokiko ekoizpen jasangarria bultzatzeaz gain, eraldaketa soziala, nekazaritza-praktika jasangarrienak eta ingurumen-kontzientzia sustatzea.

Gure eskualdeko 3 baserrietan: Sakona (Azpeitia), Makibar (Azpeitia), eta Lurreko Bizia (Zarautz), uraren ureztatze sisteman sensorika jarri da hauen erabilera digitalki kontrolatzeko eta honen erabilera egokiagoa egiteko. Halanola, eskualdeko ustategietan galdetegiak egin dira eta formakuntza eskeini da gai honen inguruan.



## 2.- LANDA EREMUA AUKERA ERAKARGARRI BIHURTU

ARDATZA 25: ETXEBIZITZA ESKEINTZA

### BEIZAMA

Bizi-Beizaman Urkomek kudeaketa 2020ean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza departamentuarekin hitzarmena, etxebizitza sustapena egiteko. EUROPAN arkitekto gazteen lehiaketa 12 etxebizitza alokairu sozialean egingo dira.



2022an Etxebizitza baten erosketa ETORLUR-ek. Salmentarako 4 etxebizitza egingo dira.

### AIA

- Online inkestak.
- 20-40 urte bitarteko biztanleei.
- 64 erantzun jaso dira. Inkesta bidalitakoen %14.
- Jasotako erantzunekin txostena egin da.
- Herritarren aurrean aurkezpena egingo da.

NEB BOOST  
FOR SMALL  
MUNICIPALITIES


BIZI  
BEIZAMAN

### 3.- EKOSISTEMA EKINTZAILEA DINAMIZATZEA ARDATZA 31: EKINTZAILETZA

- Landa eremuan enpresa edo proiektu bat garatu nahi dutenei monitorizazio programa bat eskeintzen diegu HAZI-rekin edo eskualdeko garapen agentziekin elkarlanean
- Proiektu horien bideragarritasuna, finantziazioa, enpresa plana egiten laguntzen zaie.
- Urola Erdiko Ekintzaitza mahaian parte-hartzea.
- KLINK egitasmoa martxan jarri zen 2018an [www.klink.eus](http://www.klink.eus)
- Urola Erdiko ikastetxeekin “Etorkizuna Eraikiz” dinamikan parte hartzen dugu.
- KABIA komunitatea (EAE mailak HAZI-k bultzatua)



<https://klinkekintzaitetasuna.wordpress.com/>



## 4.- LEHEN SEKTOREA PROFESIONALIZATU ETA BERRIKUNTZA SUSTATU

### ARDATZA 32: EGUNGO SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

**Eusko Jaurlaritzako Kooperazio deialdia 2 proiektu (Urkome Dinamizazioa).**

#### **Lihoa 2030**

Lihoa labore bat baino askoz gehiago da: aukera bat da dibertsifikatzeko, lurzoruak birsortzeko, KEOak harrapatzeko eta ekonomia zirkularrerako bide berriak irekitzeko. LIHOA 2030en Gipuzkoaren etorkizunerako ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-potentziala aztertzen dugu.

**Partaideak: Asmoz Fundazioa, Zubigune Fundazioa, SBN Clima, Sakona Etxaldea eta Urkome**

*Lihoa Kooperazio proiektuaren aurrekontua 103.430€ (%80 finantziazioa)*

*Bazkide guztien artean.*



## 4.- LEHEN SEKTOREA PROFESIONALIZATU ETA BERRIKUNTZA SUSTATU

ARDATZA 32: EGUNGO SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

GFA “ EKONOMIA ESUSTAPENENKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETARAKO DEPARTAMENTUA”

2025-2026 epealdirako

Proiektua: LANDA MERKATURANTZ. Urola Kostako landa eremuko enpresak merkaturatzeko ahalduntzen

HELBURUA: Urola Kostako landa-enpresen lehiakortasuna indartzea du helburu, batez ere elikagaien sektorea; diagnostikoa, prestakuntza aplikatua, merkataritza-berrikuntza eta sareko lana uztartzen dituen prozesu praktiko eta kolaboratibo baten bidez.

Proiektuan eskualdetik parte hartuko duten ekoizleak: **Santa Klara (Esnekiak), Xarrondo (Esnekiak), Makibar (Baratzagintza) eta Ibarbi koopeeratiba (Errezil sagarra eta honen eraldaketa), eta Danel Olano (Esnekiak)**

*Enpresak Babesten: GFAREN finantziazioa 30.163,09€ ( aurrekontu osoa 30.976€)*




## 4.- LEHEN SEKTOREA PROFESIONALIZATU ETA BERRIKUNTZA SUSTATU

ARDATZA 32: EGUNGO SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

### ESNE MAKINA (AZKOITIA)



### ERREKAUEK ETA ENKARGUK



## 4.- LEHEN SEKTOREA PROFESIONALIZATU ETA BERRIKUNTZA SUSTATU

### ARDATZA 32: EGUNGO SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

#### ARTILEAREN BALORIZAZIOA

# Gu


**Etorkizuna ehuntzen, jatorria zaintzen.**

Gure lurraldearekin konprometitutako pertsonen batasunerik, sortu genuen. Artilea ikuspegi berriak eraikitzeko aukera bat da, animaliarekiko, artzainarekiko eta balio-kate osoarekiko errespetutik abiannta.

Ardia da ardatza. Haren babesa, artilea, lankidetzan aritzeko eta zeharka eraikitzeko aukera bihurtzen da, eta, aldi berean, zuntz natural horri balioa emango dioten kode berriak sortzen ditu, espazio, objektu eta egoera ugarritan.



#### PLASTIKOAREN BALORIZAZIOA



**4.- LEHEN SEKTOREA PROFESIONALIZATZEKO PROIEKTUAK DINAMIZATU**  
*ARDATZA 32: EGUNGO SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA*

**MISIOAK 2024**

**“Sagarberritzen: presente y futuro de la manzana de consumo autóctona”**

**62.218,42€ dirulaguntza (2024-2025)**

**MIK - LANDAOLA**

<https://landaola.eus/wp-content/uploads/2025/09/12.09-upv-mik-V2-para-descargar.pdf>

**MISIOAK 2024**


**“Cent-food: acercamiento de las personas consumidoras jóvenes al producto local”**

**57.542,65€ dirulaguntza (2024-2025)**

**PROSUMERLAB- BASQUE FOOD CLUSTER - LANDAOLA**

[https://landaola.eus/wp-content/uploads/2025/09/Z-FOOD\\_EUS\\_compressed.pdf](https://landaola.eus/wp-content/uploads/2025/09/Z-FOOD_EUS_compressed.pdf)

## 5.- EKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATZEKO EKINTZAK AURRERA ERAMAN ARDATZA 32: EGUNGO SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA




PROPUESTA DE  
PROYECTO  
Enero 2025

# Inklusivity Urola

Ecosistema estimulador del talento de  
personas vulnerables para el desarrollo  
de negocios circulares en Urola Kosta

Patrocinadores:



sutargi dekosocial IRAURGI BERRITZEN URKOME LANDA GARAPENA

## Iraurgi Berritzen, Sutargi, Decosocial, Urkome

**Urola Erdian, ekonomia zirkularra eta nekazal  
aktibitatearekin zerikusia duen intserzio  
enpresa baten sorrera**

## 5.- EKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATZEKO EKINTZAK AURRERA ERAMAN ARDATZA 32: EGUNGO SAREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA



# TALCIR

INNOVACIÓN & INCLUSIÓN

UN PROYECTO DE



FINANCIADO POR



Proiektu honen bidez Urkomek  
6.185,37ko Dirulaguntza garbia lortu du.

### AGROUROLA proiektua

Urola Kostako nekazaritzako elikagaien sektoreak sortutako hondakinak identifikatzea eta sailkatzea, eta haien ustiapen ekonomikoa, energetikoa eta/edo ingurumenekoa ahalbidetutako balorazio-aukerak aztertzea  
Landaola bidez %100 finantziatuta GFA-tik

### Fundación Dekosocial

Organización sin ánimo  
de lucro desde 2023



**TREBATU GIPUZKOA: 2024 proiektu  
pilotoa. Hitzarmena Eusko  
Jaurlaritzarekin. (2 URTE)  
LA CAIXA (3 URTE)**

<https://trebatu.eus/>



## AZOKEN DINAMIZAZIOA Landaolatik: GIPUZKOAKO AZOKEN SAREA

**2 lantalde: Komunikazioa eta Gobernantza**

**Plan estrategikoaren jarraipena**

**Ekitaldia 2025ean Eibarren**

**2025ean Formakuntza udal teknikarientzat eta ekoizleentzat**

**2025ean Tailerrak azoketan (11)**



## 7.-MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK BULTZATZEA

ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA



### AZPEITIKO AZOKA

GIPUZKOAKO AZOKEN SAREAN

TALDE ERAGILEA: Udala, Elikagunea, Bertan,  
Urkome eta baserritarren ordezkariarekin.

Bilerak beharren arabera

Azokako egutegiaren kudeaketa

Eskaera berriak kudeatu

Enkarguk proiektuaren jarraipena

Ekoizle/ baserritarren beharrei erantzun

Sare sozialaren kudeaketa



## 7.-MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK BULTZATZEA

ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA

### ZARAUZKO MERKATU PLAZA

- BI ASTEAN BEHIN BILERA UDALEKO ORDEZKARIEKIN.
- URTEAN HIRU BILERA MERKATUKO KIDEEKIN.
- MERKATUKO ELKARTEARI LAGUNTZA ESKAINI: justifikazioa, ekimenen antolaketa...
- MERKATUAREN SUSTAPEN EKINTZAK: Bertatik bertara eta garaian garaikoa, Zatoz merkatura! (ikastetxeekin), Basque Culinary Center errezeta lehiaketa...
- ESKAERA BERRIAK KUDEATU.
- EKOIZLEEN BEHARREI ERANTZUN.
- MERKATUAREN EGUNEROKOTASUNA AURRERA ERAMATEKO DOKUMENTUEN SORRERA: giltzen lagapenak, biltegien garbiketa...



## 7.-MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK BULTZATZEA

ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA

# AZKOITIKO BERDURA PLAZA

- BI HILEAN BEHIN BILERA LAN TALDEAREKIN.
- ERABERRITZE PROZESUA. POSTU IREKI ETA ITXIEN BIRMOLDAKETA.
- ERREKAUEK PROIEKTUA.
- ESKAERA BERRIAK KUDEATU.
- EKOIZLEEN BEHARREI ERANTZUN.
- GAS TAILERRAK KUDEATU.



## 7.-MERCATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK BULTZATZEA

ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA

### ZESTOAKO UDALA BERTAKO PRODUKTUEN SUSTAPENA

- Merkatari txikiei galdetegiak: 2 galdetegi
  - Herrian bertako produktuak identifikatu.
  - Zestoan bertako zein produktu dauden identifikatu.
- Galdetegiak presentzialak izan dira.
- Galdetegi bakoitzaren laburpen txostena.
- Zestoan aurkitu daitezken produktuen inbentarioa sortu da dendaz denda.
- Udala, merkatari elkarte eta Urkome elkarlanean sustapenerako kanpainaren diseinua.



## 7.-MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK BULTZATZEA

ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA

- **2025ean ekoizleen online gida eguneratu da urtero bezela**




The screenshot shows the URKOME website header with navigation links: Aurkezpena, Jarduerak, Aholkularitza, Harremana, and Eusk / Cast. The main banner features a woman with a wooden staff standing in a field with several cows. The text on the banner reads 'Landa eremuarekiko konpromisoa' in large white letters. Below this, a white box contains the title 'Ekoizleen gida' in green, followed by a paragraph of text in Basque: 'Orrialde honetan bi eratako bilaketen bidez topatu liteke Urola Kostako ekoizleen inguruko informazioa. Batetik, ekoizleen zerrenda ageri da eta bestetik, bilaketa aurreratuarekin herrien edo produktuen araberako bilaketa egiteko aukera eskaintzen du. Bilaketa librerako berriz, beharrezkoa izango da aurkitu nahi den produktua izendatzea (adibidez sagarra, ogia, letxuga...).' On the right side of the banner, there are social media icons for Facebook, Twitter, YouTube, Instagram, and a Newsletter sign-up button.

# 8.-BERTAKO PRODUKTUAK ETA LEHEN SEKTOREA BALIOAN JARTZEKO SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK BULTZATZEA

ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA

- 4 NEWSLETTER.
- WEB ORRIALDEA EGUNERATUTA MANTENDU.
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
  - Facebook: 663 jarraitzaile
  - X: 563 jarraitzaile
  - Instagram: 631 jarraitzaile
  - Youtube: 15 harpidedun.

<b>WEB</b>	<b><u>Urkome.</u> eus</b>	<b><u>urkome.net</u></b>
<b>GUZTI RA</b>	<b>83.170 bisitari</b>	




# 8.-BERTAKO PRODUKTUAK ETA LEHEN SEKTOREA BALIOAN JARTZEKO SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK BULTZATZEA

## ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA



- WEB ORRIALDEA EGUNERATUTA MANTENDU: LandanEkin, Artile bilketa, Landaola Sariak.
- GIPUZKOAKO AZOKEN SAREKO WEB ORRIALDEA EGUNERATUTA MANTENDU.
- EHU UDAKO IKASTARO EUSKARRIAK SORTU.
- GIPUZKOAKO AZOKEN SAREKO TAILERRETARAKO EUSKARRIAK SORTU.
- WEBGUNEA: 6.920 Bisitari
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
  - Facebook: 601 jarraitzaile
  - X: 330 jarraitzaile
  - Instagram: 404 jarraitzaile
  - Youtube: 16 harpidedun



## 8.-BERTAKO PRODUKTUAK ETA LEHEN SEKTOREA BALIOAN JARTZEKO SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK BULTZATZEA

ARDATZA 34: LEHENTASUNEZKO SEKTOREAK:ELIKADURA BALIO KATEA



### VIII. Landaola Sariak Zumarraga



### IX. Landaola Sariak Mendaro



Youtube kanalean eta tokiko telebistetan emango da

## 9.- NEKAZARITZAREN ETA AISIALDIAREN BATERAGARRITASUNA LORTZEKO NEURRIAK TOPATU

ARDATZA 40: NATURA ONDAREA KONTSERBATZEA ETA BALIOESTEA

### GEOPARKEA

- **Zumaia, Deba eta Mutrikuko udalek sustatutako ekimena**
- **Partaideak**
  - ❖ Aranzadi
  - ❖ Unesco Etxea
  - ❖ Debegesa
  - ❖ Urkome
  - ❖ Debemen
  - ❖ Eusko Jaurlaritza
  - ❖ Gipuzkoako Foru Aldundia
  - ❖ Urola Kostako mankomunitatea
- **Inguruneko baseritarren elkarlana.** Geoparke eremuan lantalde bat osatu dugu bertan bizi eta lan egiten duten baseritarrekin; honen bidez turismoak duen inpaktu negatiboa eta sortzen dizkieten kalteen inguruan sentsibilizazio ekintzak garatu nahi dira.





## 10.-NEKAZAL KULTURAN HEZI

### ARDATZA 40: NATURA ONDAREA KONTSERBATZEA ETA BALIOESTEA

#### **HELBURUA**

Hezkuntza eremuan, ikastetxeekin elkarlanean garatzen diren ekintzak. Landa eremuak betetzen dituen funtzioak eta nekazariak osasunean, paisaian eta kulturaren mantentzean duten papera ikasleei helaraztea litzateke helburuetariko bat. Baita baserriko mundua etorkizuneko irtenbide profesional gisa aurkeztea.

LANDAOLAREN eskutik jarduera hauek Gipuzkoa mailan modu antolatuta batean koordinatzea, kudeatzea eta saretzea bultzatzen da.

**ESKOLA BARATZAK:** Programa honen bidez haurrek baratza baten prozesu bizia ezagutzen dute. Asmoa ikastetxeko jangelekin lotzea da, eta gai pedagogikoekin bat egitea baratza barruan hainbat diziplina sustatuaz, eta honi lotuta elikadura osasuntsua, ingurugiroaren babesa eta nekazaritzaren garapenari buruzko kontzientzia jorratzen dute. Bertako hazien zaintza erreserborio ere izatea bilatzen da.

**HAZIEN SUSTAPENA:** Hazi sarearekin baserrietan gorderik dauden haziak ezagutu eta balioan jarri nahi dira hedapena emanaz, horretarako ekintza ezberdinak lantzen dira:

Hazi ezkutuen bila, hazien aterpea, hazien erauzketa tailerra, elikadura mapa, Eskola agroekologia Ikastetxeetan, maleta ibiltariak eta Nekazal hiztegia.



<https://www.cristinaenea.eus/eu/nekazal-kultura-eskoletara-aurkezpena>

## 11.-EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN BIDEAN

*ARDATZA: OROKORRA*

- Eusko Jaurlaritzatik eta GFA-tik genero ikuspegia gure elkartean barneratzea eskatu da.
- Gure elkartearen estatutuen egokitzapena 2019an
- 2023an, udal hauteskunderen ondoren ere ZB legearen baitan eratu da
- 2025ko irailean, elkarteen aldaketa egin ondoren kontuan hartu da.
- EJ-ko urteko txostenean aipamena

## 11.-EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN BIDEAN ARDATZA: OROKORRA

Landaolak landa-eremuko emakumeen ikusgarritasuna eta aitortza sustatzeko lanean jarraitu du 2025ean, Berdintasunaren bidean ildoaren barruan. Testuinguru horretan, “Euskadiko landa emakumeen begirada” izeneko dosierraren zabalkundea eta sozializazioa egin da.

Lanketa 2024an garatu zen, MENEKO osatzen dugun Erkidegoko Landa Garapenerako Elkarte guztiak. Euskadiko **landa-eremuko 21 emakumeren testigantzak** bilduz, landa-ingurunean bizi eta lan egiten duten emakumeen aniztasuna, ekarpena eta errealitateak ikusgai jartzeko helburuarekin. Testigantzek lehen sektorearekin lotutako jarduerak ez ezik, landa-eremuan garatzen diren bestelako proiektu ekonomiko, sozial eta kulturalak ere jasotzen dituzte, genero-ikuspegitik egindako hurbilketa integral baten bidez

2025ean, Landaolak lanketaren emaitzak komunikabideen bidez, sare sozialen bitartez eta inprimatutako **liburuxken banaketaren** bidez zabaldu ditu, bereziki 2025eko urriaren 15ean, Landa Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta. Egun horren harira, egindako lanaren emaitzak komunikatu eta partekatu dira, landa-emakumeen rola eta ekarpena gizarteratzeko, estereotipoak apurtzeko eta landa-eremuan berdintasunaren aldeko kontzientziazioa indartzeko helburuarekin.

Ekintza honen bidez, landa-garapenerako politiketan genero ikuspegia txertatzeko konpromisoa berretsi da, eta landa-emakumeen ahotsa eta esperientzia balioan jartzen lagundu du, **erreferente positiboak** sortuz eta etorkizuneko belaunaldientzat inspirazio-iturri izan daitezzen



### Euskadiko landa emakumeen begirada.

MIRADA DE LAS MUJERES RURALES DE EUSKADI

[https://urkome.eus/  
almacen/a34731d7.pdf](https://urkome.eus/almacen/a34731d7.pdf)

# 3 ARDATZ/ 5 PROIEKTU LEHENETSI 2026rako

Ardatz Estrategikoak	Jarduera ildoak
05 Irisgarrutasuna	LANDA EREMUKO AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK HOBETU
09 Derrigorrezkoa ez den goi-mailako hezkuntza	PRESTAKUNTZA-ESKAITZA TENDENTZIA BERRIETARA EGOKITZEA
13 Gizarte-arreta	GENERO-EKITATEA ETA KOLEKTIBO ZAHURGARRIEN INKLUSIOA SUSTATZEA
20 Eraldaketa digitala	LANDA-EREMUAN ERALDAKETA DIGITALA ETA SORTZEN ARI DIREN TEKNOLOGIAK TXERTATZEA
25 Etxebizitza-eskaintza	LANDA EREMUA AUKERA ERAKARGARRI BIHURTU
30 Gazteria	LANDA EREMUAN LANA ETA BIZI BALDINTZAK ERRAZTEKO EKINTZAK GARATZEA
31 Ekintzailletza	EKOSISTEMA EKINTZAILEA DINAMIZATZEA
32 Egungo sarearen lehiakortasuna hobetzea	TOKIKO ERAGILEEN ETA ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA
32 Egungo sarearen lehiakortasuna hobetzea	LEHEN SEKTOREA PROFESIONALIZATU ETA BERRIKUNTZA SUSTATU
32 Egungo sarearen lehiakortasuna hobetzea	EKONOMIA ZIRKULARREKO ETA KUDEAKETA JASANGARRIKO NEGOZIO-EREDUAK GARATZEA
33 Enplegua eta prestakuntza	ERRELEBOA LANDA EREMUAN BULTZATZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	LEHEN SEKTOREKO ERAGILEEN ERRENTAGARRITASUNA ETA BIZI KALITATEA HOBETZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	MERKATURATZEKO ZIRKUITU LABURRAK BULTZATZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	BERTAKO PRODUKTUAK ETA LEHEN SEKTOREA BALIOAN JARTZEKO SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK BULTZATZEA
34 Lehentasunezko sektoreak: Elikaduraren balio-katea	LURRAK ESKURATU ETA LEHEN SEKTOREARENTZAT ERABILGARRI JARRI
36 Lehentasunezko sektoreak - Turismoa, merkataritza eta lotutako jarduerak	TOKIKO PRODUKTUAK ETA BERRIKUNTZA BULTZATU
40 Natura-ondarea kontserbatzea eta balioestea	NEKAZARITZAREN ETA AISIALDIAREN BATERAGARRITASUNA LORTZEKO NEURRIAK TOPATU

3 proiektu lehenetsi dira 2026rako

Lehenetsitako proiektuak:

- “Inklusivity Urola”
- Enpresak Babesten
- Baserri Digitala 2.0



URKOME  
LANDA GARAPENA

**Eskerrikasko!**